ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA

**<u>BATZAR OROKORRAREN AKTA</u>**
***ASAMBLEA ANUAL***

Partehartzaileak: Jon Serrano, Joakin Garrido, Juan Carlos Mora, Javier Cantera, Gorka Keralt, Mikel Ubillos eta Iñigo Landa. (Luis Mari Ralla, Antxon Alfaro eta Angel Calvok azaltzen dute ezin dutela bileran egon).
Casares Kultur Etxean, 1996eko urriaren 19an goizeko 11,30tan bildurik, Batzarrerako aurretik jarritako gai zerrendari heltzen diote.

*Asistentes: Jon Serrano, Joakin Garrido, Juan Carlos Mora, Javier Cantera, Gorka Keralt, Mikel Ubillos e Iñigo Landa. (Luis Mari Ralla, Antxon Alfaro y Angel Calvo excusan su no asistencia).*
*Reunidos el día 19 de octubre de 1996 en la Casa de Cultura Casares a las 11.30 de la mañana abordan los temas del orden del día de la Asamblea.*

## 1. Bukatu berri den lan-urtearen aktibitateen txostena
## *Memoria de las actividades realizadas*

### a) Tokiko Bilduma / *Colección Local*

Hitzartua zegoen bezala, abenduan Tokiko Bildumaren katalogazio berria entregatu genion Kultur Etxeari. Martxoan katalogazio berriaren aurkezpena jende aurrean egin genuen, Concepcio Carreras anderearen Tokiko Bildumei buruzko hitzaldi interesgarri batekin batera. Maiatzean ordenagailua erosi genuen eta katalogazioa datu-base programa konpatible batera egokitzera ekin genion, irailerako erabilgarri egon dena.

Beste aldetik, eguberritik aurrera Tokiko Bilduma gela berri batean kokaturik dago, lehengo liburuzain-bulegoan. Esan behar dugu askoz erosoagoa eta hobeto gaudela.

*Tal y como nos comprometimos, en diciembre entregamos a la Casa de Cultura el catálogo de la Colección Local renovado. En marzo se hizo la presentación pública del mismo junto a una interesante charla de Concepció Carreras en torno a las Colecciones Locales. En mayo adquirimos un ordenador lo que ha permitido informatizar la Colección, la cual ya está a disposición del público en general.*

*Por otro lado, desde las navidades pasadas la Colección se encuentra en lo que era la oficina de la bibliotecaria que es, sin duda, un espacio más adecuado que el anterior.*

### b) Ibilaldiak / *Excursiones*

Jarraitu dugu ibilaldiak egiten. Bukatu dugu Altzako udal-barrutiaren eta mugarrien errepasoarekin, lehen Errenteriako muga egin bagenuen, aurten beste hiru herriekin dauzkagunak ikusi ditugu, Astigarraga, Donostia eta Pasaiakoak alegia. Altza-basora ere joan ginen.

Hauetik aparte beste bi eskurtsio egin ditugu, bata Usurbilgo Irisasi parkera eta bestea Artetako Museo Etnografikora (Nafarroa).

*Este año hemos continuado con las excursiones. Hemos terminado con el repaso de los límites de Altza, que el curso pasado empezamos con Rentería, y de los mugarris que aún permanecen en los límites con los términos de Astigarraga, Pasaia y Donostia así como Altza-basoa.*

*Además, hemos hecho otras dos excursiones al parque Irisasi de Usurbil, y al Museo Etnográfico de Arteta en Navarra.*

### c) Agiritegiak / *Archivos*

Aurten Pasaiako agiritegia eta Valladolideko "Real Chancilleria"-koa arakatu ditugu. Era berean, Altzari buruzko zenbait dokumentuen kopiak gureganatu ditugu (Chancilleriako bat, Iruñeko Katredaleko beste bat, Donostiako bat eta Errenteriatik beste bat).

Aurreko urtean planteatu genuen "Ikertzailearen Gida" proiektua ez dugu gauza handirik aurreratu, baina ahaztu ere ez.

*Hemos realizado un vaciado de los fondos referentes a Altza existenten en el Archivo Histórico de Pasaia y en el de la Real Chancillería de Valladolid. Así mismo hemos copiado algunos documentos (algunos muy extensos) para la Colección Local*

*No hemos adelantado gran cosa en el proyecto de la "Guía del investigador" que planeamos, pero tampoco lo tenemos olvidado.*

**d) Hemeroteka**

Prentsan Altzari buruz ateratzen dena biltzen jarraitu dugu. Altzari buruz oso gutxi ateratzen da orohar eta gehien ateratzen duena Diario Vasco da, segidan Egin, Irutxulo, eta atzetik beste guztiak, batere edo ezer gutxi ateratzen dutenak.

*Hemos continuado reuniendo y clasificando lo que en la prensa se publica relacionado con Altza. En general, el que más publica es el Diario Vasco, luego Egin, Irutxulo, y el resto nada o casi nada.*

**e) Grabaketak / *Grabaciones***

Ez dugu gai honetan gauza handirik aurreratu. Elkarrizketaren bat grabatu dugu (ikus Fototeka) eta kontaktuak mantendu ditugu baina alor hau sistematikoki lantzea egiteke dago.

*No hemos adelantado mucho en este tema. Solamente hemos realizado un par de entrevistas (ver Fototeka), y aunque hemos mantenido los contactos queda pendiente la grabación de las entrevistas.*

**f) Harremanak / *Contactos***

Une honetan harremanetan gaude 149 lagun eta elkarteekin, egun batean gurekin kontaktuan jarri zirenak eta egiten dugunarekin interesatuak egon daitezkenak.

Bestalde, beste herritako talde eta elkarteekin ere harremanetan jarri gara materialak eta esperientziak trukatzeko eta egiten duguna komunikatzeko. Beste lekutan egiten dena ezagutzea oso aberasgarria gertatzen ari da eta bide batez gurea ere ezagutarazten dugu.

*En este momento tenemos relación con 149 personas y asociaciones con las que en su momento se han puesto en contacto con nosotros y a las que pasamos información de lo que estamos haciendo.*

*Así mismo, mantenemos correspondencia con asociaciones e instituciones de otros pueblos para el intercambio de materiales y experiencias, lo que nos permite conocer lo que se está haciendo en otros lares y al mismo tiempo dar a conocer lo que hacemos nosotros.*

**g) Altzako Euskal Jaiak**

Altzako beste elkarteekin batera Euskal Jaien antolaketan parte hartu dugu. Denetikan prestatu zen: pailazoak, kontzertua, bazkaria... Gure elkartea ibilaldiaren antolaketan parte hartu zuen bereziki, ikusi behar genituen baserriei buruzko txartelak prestatuz. Balorapena oso ona izan zen eta datorren urterako antzeko zeozer egin behar dela pentsatu zen.

*Conjuntamente con otras asociaciones de Altza organizamos las Euskal Jaiak de este año. Hubo de todo: payasos, concierto, comida... Nosotros participamos especialmente en la excursión preparando unos carteles con el nombre y alguna noticia de los caseríos por los que pasaba. El balance ha sido muy bueno y para el año que viene ya se está pensando en repetir.*

**h) Casaresen X. urteurrena / *10º Aniversario de Casares***

X. urteurrenaren ospakizunetara egin dugun ekarpena bi aktibitate izan dira: Bata, “Altzako Historia Grafikoa” izeneko erakusketa, argazki, mapa eta agirietan oinarrituz eta zortzi gaien inguruan bildurik Altzako ikuspegi zabal bat eskeini genuen lehen aipamenetatik gaur egun arte. Bestea David Zapirainen hitzaldia izan zen, “Altza: nacimiento de una identidad”, aurten lehen aldiz eskaini dugun dirulaguntzari esker burututako ikerketan oinarrituz, eta honekin batera ikerketaren argitalpena ere. Emaitzetaz oso gustora geratu gara.

*Nuestra aportación a la conmemoración del 10º aniversario ha consistido en la organización de la exposición “Historia gráfica de Altza”-en base a fotos, mapas y documentos estructurados en torno a ocho momentos o temas que ofrecían una visión de la historia de Altza desde sus orígenes hasta el presente- y una charla de David Zapirain, “Altza: nacimiento de una identidad”, basada en la investigación realizada gracias a la beca que este año por primera vez hemos ofrecido, y la publicación de la misma. Los resultados obtenidos nos han dejado muy satisfechos.*

**i) Argitalpenak / *Publicaciones***

Aurten argitalpenei eutsi diogu, aurrekoari helduz, eta aldi berean urrats berriak emanez: “Estibaus” eta “Artiga Bilduma”. Argitalpen bakoitzak izaera propioa dauka eta bere helburua betetzen du. Hautsa Kenduz ale berriak aurrekoen estiloarekin jarraitu du, gai eta maila askotako artikulu bilduma bat eskainiz, alegia. Hurrengo alerako antzekoa egitea pentsatu dugu baina artikuluak sailkatuz.

“Estibaus” buletinak, bestalde, -notiziak, iritziak eta bestelakoak jasotzen dituen hiruhilabetekariak-, lau zenbaki eman ditu, denetara hogeita lau artikulotxo, hamazazpi lagunek idatziak. Zenbaki bakoitzetatik hirurehun fotokopia egin ditugu, gehienak postaz banatu ditugunak. Banaketa honela egin dugu: bazkideen artean (46); Altzako elkarte eta instituzio ezberdinei (69); Altzako Historia Mintegiaren aktibitateekin harremanetan dauden laguntzaileak, informazio-emaileak, eta beste herrietako kultur-etxe, elkarte edo gure antzeko kezka daukaten taldeei (149). Gainontzekoak, KUTXAk Altzan dituen sukurtsaletan eta Casares Kultur Etxean jende artean banatu dira.

“Artiga Bilduma”-k, azkenik, bere lehen alea eman du: David Zapirainek idatzitako “Altza: de los cubilares al concejo. Formación y características del régimen jurídico-político altzatarra”, aurtengo Bekaren gaia hain zuzen ere. Bilduma honen helburua da gai monografikoak argitaratzea, bere zabaltasunarengatik, interesagatik edota espezialisazioarengatik “Hautsa Kenduz”-en baino ale berezi batean egotea behar duena.

*Además de continuar con lo que ya teníamos entre manos, “Hautsa Kenduz”, este año nos hemos embarcado en dos nuevos proyectos: “Estibaus” y “Artiga Bilduma”. Cada uno tiene sus características y finalidad propias. “Hautsa Kenduz III” ha continuado en la línea de los dos anteriores, ofreciendo diecisieta artículos con contenidos variados. De cara al próximo número se propone continuar igual pero clasificando los artículos.*

*El boletín “Estibaus” ofrece trimestralmente noticias, opiniones y artículos cortos y variados. En los cuatro números publicados se han publicado veinticuatro artículos escritos por diecisiete personas. De cada número se han tirado trescientos ejemplares que se han repartido por correo en su mayor parte entre los socios del Mintegi (46), las asociaciones e instituciones de Altza (69), y entre amigos y colaboradores del Mintegi, asi como entre algunas asociaciones y casas de cultura de otros pueblos que realizan actividiades similares a las nuestras (149). El resto de los ejemplares se reparten en las sucursales de KUTXA y la Casa de Cultura Casares.*

*“Artiga Bilduma”, por último, quiere ser una colección de monografías sobre Altza, que por su extensión, temática o interés precisa un tratamiento especial. Esta colección se ha estrenado publicando el contenido de la investigación realizada gracias a la beca que este año se ha ofrecido por primera vez: “Altza: de los cubilares al concejo. Formación y características del régimen jurídico-político altzatarra”, de David Zapirain.*

**j) Beka**

KUTXAk eman zigun dirulaguntzari esker aurrera eraman ahal izan dugu biziki maite genuen gogo bat: Altzako Historia Ikertzeko Dirulaguntzarena. Gai honetaz arduratu den batzordea honela osaturik egon da: José Angel ACHÓN INSAUSTI, Historia irakaslea eta Deustuko Unibertsitateko doktorea, eta Mintegiko partaideak diren eta Historia eta Geografian lizentziatuak dauden Arantza MARTINEZ eta Iñigo LANDA, azken hau batzordearen idazkari gisa..

Deialdira sei proiektu aurkeztu ziren, Altzako historiaren ikerketa ikuspuntu ezberdinetatik egiten zutenak. Guztiek merezi izan zuten batzordearen zoriona, seiek azaldutako maila oso altua baitzen eta era berean oso interesgarriak. Azken batean baten alde erabaki behar izan zuen batzordeak eta David ZAPIRAIN KARRIKAk aurkeztutako “FORMACIÓN Y CARACTERÍSTICAS DEL RÉGIMEN JURÍDICO-POLITICO ALTZATARRA” proiektuaren aldeko erabakia hartu zuen aho batez.

Ikerketaren emaitza oso ona izan da. “Artiga Bilduman” argitaratzeak, bilduma honen aurreneko urratsa izanez, aukera emango digu denoi lan honen balioaz jabetzeko.

*Gracias a la ayuda que nos otorgó KUTXA hemos podido sacar adelante un tema tan importante como es la primera beca para la investigación de la historia de Altza. La comisión encargada por AHM para llevar el tema ha estado compuesta por el Doctor en Historia por la Universidad de Deusto José Angel ACHÓN INSAUSTI, y los miembros de ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA y Licenciados en Geografía e Historia, Arantza MARTÍNEZ, e Iñigo LANDA, ejerciendo ente último como secretario de la dicha Comisión.*

*A la convocatoria se presentaron seis proyectos que abordaban el estudio de la historia de Altza desde distintas perspectivas, reconociendo la Comisión el alto nivel de los participantes y el interés de los proyectos por ellos presentados. Al final, la comisión se decidió por conceder la beca al proyecto titulado “FORMACIÓN Y CARACTERÍSTICAS DEL RÉGIMEN JURÍDICO-POLITICO ALTZATARRA”, de David ZAPIRAIN KARRIKA.*

*El resultado de la investigación nos ha dejado muy satisfechos. Su publicación en “Artiga Bilduma”, inaugurando de este modo la colección, nos permitirá apreciar la calidad de la labor realizada.*

**k) Fototeka**

Urtean zehar jarraitu dugu Altzako bizitzari loturiko argazkien bilketarekin, denetara bi argazki bildumen kopiaketa egin ditugularik:

- Harri.Berriko San Pablo Parrokiko argazki sorta, gai ezberdinak dituena, guztiak Harria ingurukoak.
- Gaiztarro familiakoak, desagertutako familiaren palazioaren argazkiekin eta bere orubean egindako Bidebieta 1 urbanizazioaren irudiekin.

Aurreko urtean bestalde Tokiko Bilduman katalogaturik zeuden argazkien birkatalogaketa egin dugu, hala nola Tokiko Bildumarako Kultur Etxeari entregatutako argazki berrien katalogaketa, katalogatu gabe zeudenak. Urtean zehar 67 argazki prestatu ditugu denetara Casares Kultur Etxearentzako.

Bildutako argazkiei buruz informazioa jasotzeko asmoz bi elkarrizketa egin ditugu Ramon Garmendia jaunarekin eta Larraitz Garmendiarekin.

*Durante el curso 95/96 hemos continuado con la recogida de fotografias referidas a la vida de Altza, habiendo realizado el copiado de dos importantes colecciones:*

- *la de la Parroquia San Pablo de Harri-Berri, con fotos de diferentes temas, pero todas ellas referidas a la zona de Harria*
- *y la de familia Gaiztarro, con fotografias del desaparecido palacio de esta familia, así como de la construcción del actual Bidebieta-1.*

*También durante el pasado curso se ha realizado la recatalogación de las fotos que había en el anterior catálogo de la Colección Local, así como la catalogación de nuevas fotografias entregadas a la Casa de Cultura para la Colección Local y que se encontraban sin catalogar. De estas fotos, 67 se han entregado a la Casa de Cultura "Casares" a lo largo del curso 95/96.*

*Con el objetivo de conseguir información sobre las distintas fotos recogidas se realizaron tambien dos entrevistas con: Jose*

*Ramon Garmendia y con Larraitz Garmendia.*

k) **Altzanet**

Teknologi berrien erabilpenean aurrerapauso bat eman asmoz aurten ordenagailu bat erosi dugu, Patronatoaren baimenez, Kultur Etxean bertan kokatu ahal izan duguna.

Era berean, ALTZANET proiektuarekin lanean jarraitu dugu, eta tipi-tapa abiatu gara informazioaren teknologi berrien erabilpenean, honen erabilpena gure lanera egokituz eta Altzaren nortasunaren garapenerako erabiliz.

Lanaren eta ikerketaren ildo honetatik harremanetan jarri ginen EUSNETekin, Gobernutik Kanpoko Erakunde bat, komunikabideen alorrean ari dena, eta haiekin batera, joan den maiatzean, hitzaldi bat eskaini genuen Altzako Kultur Etxean. Geroztik jarraitu dugu harremanetan eta, honen ondorioz, gure mintegiari eta Altzari buruzko WEB orri bat sortu dugu, dagoeneko INTERNET aurki daitekena (http://www.eusnet.org/partaide/ Altzako/home.htm).

Casares Kultur Etxearen X. urteurrenaren motiboarekin antolatu dugun erakusketan, bisitari guztiek ikusi ahal izan dute nobedade hau “Altza XXI. mendea” izenpeturiko txokoan.

*Como un primer paso en la utilización de las nuevas tecnologías, hemos realizado este último año la compra de un ordenador, que el Patronato nos ha permitido colocar en la propia casa de Cultura.*

*Así mismo, hemos continuado trabajando en el proyecto ALTZANET, y el trabajo básico desarrollado ha sido el ir dando pequeños pasos en el uso de las nuevas tecnologias de la información para aplicarlas a nuestro trabajo y al desarrollo de la personalidad de Altza.*

*En esta línea de trabajo e investigación nos pusimos en contacto con EUSNET, una ONG de la comunicación, con quienes ofrecimos una charla en la Casa de Cultura de Altza, el pasado mes de Mayo. Después hemos seguido en contacto con ell@s, y de estos contactos ha surgido la página WEB que sobre nuestra asociación y Altza se puede encontar en Internet (http://www.eusnet.org/partaide/ Altzako/home.htm).*

*En la exposición que con motivo del 10º aniversario de la Casa de Cultura se ha organizado en el mes de Octubre, tod@s l@s visitantes a dicha exposición han tenido ocasión de comprobar esta novedosa iniciativa en el rincón denominado "Altza SigloXXI".*

## 2. Bukatu berri den lan-urtearen ekonomi-balantzea
## *Balance económico del curso (1995/1996)*

| | SARRERAK / ingresos | GASTUAK /gastos |
|---|---|---|
| Aurreko saldoa (95/09/01) /saldo anterior .................... | 15.566 | |
| Bazkide kuotak /cuotas.................................................. | 25.000 | |
| Donostiako Kultur Patronatua...................................... | 147.706 | |
| Beka ............................................................................ | 100.000 | 100.000 |
| Interesak...................................................................... | 1.253 | 991 |
| Zergak / impuestos...................................................... | | 14.134 |
| Fototeka........................................................................ | 31.000 | 47.960 |
| Elkarrizketak / entrevistas............................................ | | 16.775 |
| Katalogazioa / catalogaci¾n........................................ | 400.000 | 307.469 |
| Artxibo Dokumentuak / documentos ............................ | | 24.785 |
| Ordenagailua / ordenador............................................ | | 157.735 |
| Boletina ( *Estibaus* ) .................................................. | 45.000 | 36.062 |
| | -------- | -------- |
| GUZTIRA/total. . . | 765.525 | 705.911 |

***SALDOA (96/08/31): 59.614 Ptza.***

## 3) Datorren kurtsorako plana. / *Plan de actividades para el curso pr¾ximo*

1. **Tokiko Bilduma.** Materialak biltzen jarraitu eta aldi berean katalogatu.
2. **Ibilaldiak:** Zehazteke geratzen dira.
3. **Agiritegiak** arakatzen jarraitu, zenbait dokumentu Tokiko Bildumarako bildu, eta

urratsaren bat eman “**Altzatar ikertzailearen gida”** aurrera ateratzeko. (Artiga Bilduman, adibidez).

4. **Hemeroteka.** Orain arte egindakoarekin jarraitu.

5. **Fototeka**. Argazkien bilketarekin jarraituko dugu. Halaber, argazkiak CDROMean gordetzeko aukera azter daiteke.

6. **Argitalpenak**:
    - “**Hautsa Kenduz IV”**
    - **Estibaus Buletina**
    - **“Artiga Bilduma”**

7. **Beka:** Prestatuko dugu deialdi berri bat. Oraingoan saiatuko gara dirulaguntza handiagoa izan dadin eta Historia ez ezik Giza-zientzietako beste arloei ere zabaltzea.

8. **ALTZANET**. Saiatuko gara sare telematikoak gero eta gehiago erabiltzen, gure zerbitzurako eta beste elkarteekin harremanetan jartzeko. Era berean, Altzako beste elkarteekin harremanetan jarriko gara sare hauek Altzan zabaltzeko.

9. **Bazkideak**. Jarraituko dugu gure elkartearentzako bazkideen bila, honek animoak ematen baititu lanak egiteko garaian.

10. **Finantziazioa, Administraritza.** Arlo hau korapilatu egin da neurri batean: konpromiso gehiago hartu ditugu, txostenak, aitorpenak, eskabideak... Hala ere, egin behar dira eta denon artean arinagoa izango da. Datorren urteari begira, diru iturri berriak bilatu behar ditugu zenbait aktibitate finantziatzeko.

***1. Colección Local.*** *Continuar reuniendo nuevos materiales y, al mismo tiempo, catalogarlo.*

*2.* ***Excursiones****: Quedan por concretar.*

*3. Continuar “vaciando” los archivos, copiando los documentos que parezcan más interesantes, y a ser posible, avanzar en la publicación de la “****Guía del investigador Altzatarra”.***

*4. Hemeroteca. Continuar con el trabajo realizado hasta ahora.*

*5.* ***Fototeca****. Seguir como hasta ahora. También se puede estudiar la posibilidad de guardar las fotos en CDROM.*

*6.* ***Publicaciones****:*
- *“****Hautsa Kenduz IV”***
- ***Estibaus Buletina***
- ***“Artiga Bilduma”***

***7. Beca:*** *Prepararemos una nueva convocatoria, trantado de que la dotación económica sea mayor y abriendo la oferta a otros campos de las Ciencias Sociales además de la Historia.*

*8.* ***ALTZANET****. Vamos a tratar de profundizar en el uso de las redes telemáticas con el fin de aprovechar los servicios que se ofrecen y de establecer relaciones con otros grupos similares. Igualmente, vamos a tratar de extender la red entre los diferentes grupos de Altza.*

*9.* ***Soci@s****. Continuaremos reuniendo soci@s para nuestra asociación, ya que suponen un gran aliciente a la hora de trabajar.*

*10.* ***Financiación, Administración.*** *Este capítulo se va complicando por momentos: solicitudes, memorias, declaraciones...*
*De cara al curso próximo vamos a procurar de ampliar las fuentes de financiación para nuestras actividades.*

## 5) Lan-urte berrirako aurrekontua / *Presupuesto para el curso próximo*

Zehaztu gabe geratu zen. *No se concretó*

*6.* **Bazkide berrien onartzea /** ***Admisión de nuev@s soci@s.***

Aho batez onartuak izan ziren bazkide berri hauek:
*Fueron admitidos por unanimidad l@s siguientes nuevos soci@s:*

JOSE MARIA OSORO ARLUCIAGA
Mº CARMEN CALZADA RAMIREZ
CRISTINA EXTREMO LARROCEA
ESTHER CALZADA RAMIREZ
MARI DOLORES ZUGASTI SEMPERENA
IMANOL ELIZASU ORBEGOZO
JOSE ANTONIO CELAIETA ETXEBERRIA
JOSE MIGUEL LANDA JACA
JAVIER CASTRO MONTOYA
ELENA ARRIETA YARZA
VIRGINIA ZORZANO MORATE
FRANCISCO INTXAURRANDIETA AIZPURUA
ENCARNA ARROYO RODRIGUEZ
LUIS QUERALT BABON
GORKA QUERALT BABON
JOSE MIGUEL DE ANDRES FUENTES
Mª ROSARIO ROQUERO USSIA
Mª TERESA IGARZABAL ZAPATA
PELEGRIN GONZÁLEZ VEGA
PABLO LANDA IJURKO
MITXEL IBAÑEZ ETXEBERRIA
CARLOS CORDOBES CASTAÑO
ANDRES MOLINA PEREZ
JOSE ANDRES ETXEBERRIA IRIARTE
IÑAKI IZURRATEGUI GALDOS
ARANTZA HERNANDEZ EZEIZA
HILARI PAGAZAURTUNDUA
JOSE IGNACIO BERRONDO ORMAZABAL
JUAN ARRIETA IRIZAR
AITOR GARIN SANTAMARIA
JOSE ANTONIO MOARES OTAOLA
JOAN Mª IRIGOIEN ARANBERRI

**7. Batzorde Berriaren aukeraketa /** ***Renovación de la Junta***

Proposatzen da, eta aho batez onartu, aurreko Batzordearen osaketa beste bi urterako berritzea.

*Se propone y aprueba por unanimidad la renovación por otros dos años de la Junta saliente.*

Gai zerrendako beste punturik gabe amaitutzat eman zen aurtengo Batzar Nagusia.

*Sin otro punto que tratar en el Orden del Día, se dió por terminada la Asamblea General.*

Presidentea
Jon Serrano

Idazkaria
Iñigo Landa